

XVII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko Jauna, Zugan uste on dutenen zaintzailea,
Zu gabe ez da ezer sendorik, ez ezer santurik;
erakutsiezaguzu zeure erruki ugaria;
Zu gidari eta erakusle zaitugula,
lurreko ondasunak erabil ditzagun
zerukoak iristeko eran.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 2 Erg 4, 42-44

Jango dute, eta hondarrak geldituko dira oraindik.

Erregeen liburutik

Egun haietan, gizon bat etorri zen Baal-Salisatik; lehen fruituekin ogei garagar-opil ekarri zizkion Jaungoikoaren gizonari, eta gari berria. Eliseok honela esan zion: «Eman jendeari, jan dezaten». Baina morroiak erantzun: «Zer da hau, ordea, ehun gizonentzat». Baina hark berriro: «Eman jendeari, jan dezaten; Jaunak honela baitio: "Jango dute, eta hondarrak geldituko dira oraindik"». Eman zien eta jan zuten; eta hondarrak gelditu ziren, Jaunak esan bezala.

ERANTZUN SALMOA: Sal 144, 10-11. 15-16. 17-18

**R/. Zabaltzen duzu zure esku hori, Jauna,
eta asean ematen duzu.**

Jauna, zure lan guztiek ospa zaitzate,
zure zintzoek bedeinka zaitzate.
Zure erregetza zein bikain den aitor bezate,
zure ahal izateaz hitz egin bezate. R/.

Guztien begiak daude Zuri begira,
Zuk ematen diezu beren garaian janaria.
Zabaltzen duzu zeure esku hori,
pozik ematen asean bizidun denei. R/.

Zuzena da Jauna bere bide guztietan,
zintzoa bere lan guztietan.
Bertan dago Jauna deitzen dutenengandik,
zintzoki deitzen duten guztiengandik. R/.

II. IRAKURGAIA: Ef 4, 1-6

*Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Jauna,
bai*

San Paulo Apostoluak Efesotarrei

Senideok: Nik, Jaunarengatik bahitua nagoen honek, eskatzen dizuet, zabilizatela egin zaizuen deiari dagokienez. Izan beti apal, maitagarri, bihotz handiko; eraman elkar maitekiro; saia zaitezte Espirituaren batasunari eusten, bakearen lokarritz.

Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Espiritua; bat bakarra den bezala zuek izan duzuen deiaren itxaropena ere. Bat bakarra Jauna, bat sinesmena, bat Bataioa; bat bakarra Jaungoikoa, guztion Aita, gauza guztien gainetik dagoena, guztien barruan eta guztiengan.

EBANJELIOA: Jn 6, 1-15

Aleluia: Lk 7, 16

R/. Aleluia.

V/. Profeta handi bat agertu da gure artean.

Jaungoikoak ikustaldi egin dio bere herriari. R/.

*Eseritakoen artean banatu zituen ogiak,
bakoitzak nahi zuen adina.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadesko itsasoaz beste aldera joan zen Jesus. Jendetza handia zuen ondotik; ikusten baitzuten nolako mirariak egiten zituen gaixoetan.

Jesus, orduan, mendira igo zen, eta han zegoen eserita bere ikasleekin. Handik laster zen Bazkoa, judutarren jaia. Jesusek orduan, begiak jaso eta, ondoren zetorkion hainbesteko jendetza ikusi zuenean, honela esan zion Feliperi: «Nondik erosiko dugu, guzti horiek jateko hainbat ogi?» (Zirikatzearren ari zen, Berak bai baitzekien zer egin). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogiak ez lirateke nahiko, bakoitzak apur bat izan dezan».

Ikasleetako bat, Andres, Simon Pedroren anaia, honela mintzatu zen orduan: «Bada hemen bost garagar-opil eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?» Jesusek orduan: «Esaiozue jendeari, eser daitezela lurtean». Belar ederra zen leku hartan. Eseri ziren: gizonezko hutsak bost milaren bat ziren.

Jesusek hartu zituen ogiak, egin zuen esker onezko otoitza, eta eseritakoen artean banatu zituen; eta berdin arrainak ere, bakoitzak nahi zuen guttia. Ase zirenean, honela esan zien bere ikasleei: «Bil itzazue gelditu diren hondarrak, ezer gal ez dadin».

Eta hamabi saski bete bildu zituzten, bost garagar-opil haiek jan ondoren gelditutako hondarrekin. Jendeak, orduan, halako ezaugarria egin zuela ikusitakoan, honela zioen: «Hau da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, orduan, errege egiteko etorriko zitzaizkiola oharturik, ihes egin zuen berriro mendira, Berak bakarrik.

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta ekarri ditugun eskaintzak;
misterio santu honek, zure graziaren indarrari esker,
santu egin dezala oraingo gure bizia
eta eraman gaitzala betiko zorionera.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengo

Zeruko sakramentua hartu dugu, Jauna,
zure Semearen nekaldiaren betiko origarri:
Berak bere maitasun neurrigabea eman digun dohain hori
izan dakigula salbamenerako.
Jesu Kristo.